


Euskal AEko industria-jarduera % 3,4 hazi da 2025eko urrian

Aurreko hilaren —2025eko iraila— aldean, industria-produkzioa % 0,9 handitu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko urrian Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 3,4 handiagoa izan da, lan-egutegi homogineoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal AEko industria-jarduera % 0,9 handitu da azken hilabeteetan, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera positiboa izan du 2025eko urrian, eta produkzioa % 1,9 handitu da sektore osoa kontuan hartuta. Igoera hori batez ere *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du, horien produkzioa % 10,7 igo baita; izan ere, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* produkzioa % 0,1 murriztu da, 2024ko urriko datuekin alderatuta. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 7,3 handitu da aurreko urteko urriaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 0,5 handitu da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 10,1 handitu da 2025eko urrian, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	
Indize orokorra			
Euskal AE	3,4	-0,6	0,9
Araba/Álava	-4,9	-4,4	1,7
Bizkaia	6,7	0,0	2,3
Gipuzkoa	4,8	0,8	-0,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	1,9	1,3	-1,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	10,7	1,1	-2,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,1	1,3	-0,7
Ekipo-ondasunak	7,3	0,5	3,5
Bitarteko ondasunak	0,5	-1,5	0,1
Energia	10,1	-3,6	4,4

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilerako arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urteko pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Abenduaren 4a

Iturria: Eustat, Industria-produkzioaren indizea

2025eko urrian Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban (% 4,9 murriztu da). Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, produkzioak urte artean % 6,7 eta % 4,8 egin du gora, hurrenez hurren.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko urrian, urte artean, produkzioaren hazkuntza handiena hauek izan dute: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 22,1eko hazkuntza), *Garraio-materiala* (% 13,5eko hazkuntza) eta *Material eta ekipa elektrikoa* (% 10,8ko hazkuntza). Kontrako zentzuan, *Makineria eta ekipa* sektorean urte batetik bestera % 0,5 murriztu da produkzioa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektorre A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urria 2025

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	0,7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	0,2
Kautxua eta plastikoak	2,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	0,5
Materiala eta tresna elektrikoak	10,8
Makineria eta tresneria	-0,5
Garraio-materiala	13,5
Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	22,1

(p) Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Abenduaren 4a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko URRIKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen hamar hilabeteetako balantze metatuan, Industria-produkzioaren indizea % 0,6 jaitsi da. *Energia* sektorean produkzio metatua % 3,6 jaitsi da urrira arte, eta *Tarteko ondasunak* sektorean % 1,5. *Kontsumo-ondasunak* sektorean eta *Ekipamenduko ondasunak* sektorean, aldiz, produkzioa % 1,3 eta % 0,5 igo da, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehenengo hamar hilabeteetako balantze metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan, produkzioa % 0,8 igo baita. Bizkaian, produkzio metatua konstante mantendu da, eta Araban, aldiz, produkzioa % 4,4 jaitsi da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **87,39**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62